EURI AZIDOA

POLUZIOAK, oro har, arazo-mota desberdinak eragin ditu Lurrean. Euri azidoa, poluzio-mota batzuk sortutakoa da; zentral termikoek eta ibilgailuek sortutakoa batez ere. Hauek erregai fosilak erretzen dituztenean, tximinietatik edo ihes-tutueetatik, besteak beste, sufre oxidoa eta nitrogeno oxidoa isurtzen dituzte atmosferara. Poluitzaile hauetako zati bat lurreratu egiten da eta beste zatia aireak eramaten du, ur-lurrinaz konbinatu eta azidoak sortuz. Azkenik, azido hauek euriarekin batera lurreratzen dira.

Euri azidoa batez ere 50-80. hamarkadetan nabaritu bazen ere, orain dela ehundaka urte, jada, ezaguna zen. Artean industria gutxi baldin bazegoen ere, naturalki (sumendien, ikaztegien eta landare-ustelketaren ondorioz) sortzen zen noizean behin. Hala ere, naturalki sortutako euri azidoaren eragina, poluzioaren bidez sortutakoarena baino askoz ere txikiagoa izan da.

1950-1980 urte-bitartean Europako euriak hamar aldiz handiagotu zuen lurraren azidotasuna. Nahiz eta azken urte hauetan azidotasun-maila txikiagotu, arazoa oraindik larria da.

Euri azidoak badu ezaugarri harrigarri bezain arriskutsu bat, hau da, euri azidoa lainoekin batera higitzen denez, sortutako lekutik ehundaka kilometrora eror daiteke. Tximiniak, oro har, oso altu izaten direnez, hauek botatako oxidoak lainoek harrapatzen dituzte. Laino hauek haizeen eraginez higitu egiten dira eta handik bizpahiru egunera euri poluitua botatzen dute. Batzuetan ordea, euri azidoa sorlekutik hurbil eror daiteke. Honen adibide gisa, Eskoziako kasua aipa dezakegu; bertan Ingalaterran sortutako euri azidoa erortzen baita.

Hala ere, arestian aipatu bezala, askotan poluzio atmosferikoa esportatu egiten da. Adibidez, Erresuma Batuak Eskandinaviarantz esportatu du. Euri azidoaren eragina jasaten ari diren beste leku batzuk Afrika, Hego Amerika eta Asia hegoaldea dira.

Ondorioak

Ur-inguruneetan lakuak dira, ezbairik gabe, ondoriorik larrienak jasaten dituztenak. Euriak utzitako azidoak errekek eta ibaiek eramaten dituzte. Ur hauek lakuetara isurtzen badira, bertako animaliarik eta landarerik gehienek ez dute ur azidoa onartzen. Ondorioz aintzira asko kalteturik edo hilik dago. Honi buruz asko dakite Eskandinavian, bertako milaka laku gardentasuna mantenduz hil egin da eta egoera honen erruduna Erresuma Batua izan da; poluzioa honek esportatzen baitzuen. Hala ere, aipatu laku hilek beren gardentasuna mantentzen dute.

Lehorrean basoak dira kalterik handiena jasaten dutenak. Zenbait lekutan zuhaitzek hostoak galtzen dituzte hil bitartean. Zuhaitzek ezaugarri jakineko lurrak behar dituzte. Euri azidoak lurreko elementuen konposizioa aldatzen duenez, aurreko oreka apurtu egiten da. Lur azidoan hazten diren zuhaitzek, izozte- edo lehorte-garaian ez dute behar adinako defentsarik. Ondorioz, ahulezia honen eraginez basoetan dauden birus, onddo edo intsektuen erasoz galtzeko posibilitatea besterik ez dute.

Euri azidoak lurrari ezezik, hostoei zuzen-zuzenean eraso diezaieke. Sufre (IV) oxidoak hostoen poro txikiak ixten ditu, landareak arnasa hartzea eragotziz.

Arte-lanak eta eraikuntzak ere ez daude eraso honetatik salbu. Euri azidoak estatuetako, margoetako eta eraikuntzetako materialak ukitzen dituenean, kaltetu ezezik apurtu ere egin ditzake.

Arnastutako hautsek, gasek eta partikulek substantzia kantzerigenoak izan ditzakete. Batez ere diesel motoreek botatako kedarrezko partikula beltzek minbizia sor dezakete. Gainera euri azidoak aluminioa garraia dezake urtegietaraino eta ur hori edanez gero Alzheimer gaitza harrapatzeko arriskua dago.

Euri azidoek sortutako arazoak Lurreko leku askotan gertatzen dira eta Euskal Herria ere ez dago salbu. Azken datuen arabera Euskal Herrian arazo larririk ez baldin badago ere, zonalde batzuetan besteetan baino nabariagoa da euri azidoaren eragina. Une honetan, orohar, kostaldeko landarediak barnealdekoak baino osasun hobea duela esan daiteke.

Konponbideak

Arazoak arazo, konponbideak ere badaude.

Lehenengoa, zentral termikoek isurtzen duten poluzioa kontrolatu egin behar da, tximinietan iragazki egokiak ipiniz.

Bigarrena, ibilgailuen ihes-tutuetatik botatzen diren gasen kantitatea txikiagotu egin behar da. Horretarako, katalizatzaileen bidea da egokiena.

Hirugarrena, ibilgailu partikularra gutxiago erabili behar da eta garraio publikoa edo bizikleta gehiago.

Laugarrena, etxeetan eta lantegietan energia aurreztu egin behar da eta aldi berean energia alternatiboen bidea jorratu.

Azkenik, poluzioaren aurkako arauak indartu egin behar dira.



Garapen industrialaren ondorioz atmosferara jaurtikitako sufre oxidoak eta nitrogeno oxidoen zati batek erreakzionatu eta azidoak eratzen dituzte, eta lekuan bertan erortzen dira euriarekin; beste zati bat haizeek bultzata hodeiek garraiatzen dute eta beste herrialde batzuetako lur eta itsasoak kutsatuko ditu.